


BRETXAKO ARRANDEGIA
C MAILA

BRETXA PLAZA 3
BRETXA PLAZA 3 ETA IÑIGO 16



Egilea eta data: Lucas Alday; 1928.

Deskribapena

Bretxako antzinako arrandegia, Bretxako merkatuarekin batera ekialdeko zabalduraren espazio publikoa definitzen zuena. Lucas Alday arkitektoak 1928an proiektatuta, barne erreforma sakon bat izan du merkataritza zentro gisa egokitzeko. Beheko solairuan hareharrizko harlandua eta gainerakoan harlangaitz horma mantentzen dira fatxadetan, zokalo eta solairu nagusiaz osaturiko ideia klasikoari jarraituz.

Bertako lerro nagusiek pilastren ordena soila jarraitzen dute, eta elementu sendoenak harlandu kuxinduz sendotuak daude, hala nola zokaloa eta kantoiak.

Leihoen proportzioagatik eta ordenaren altuerarekin loturik pilastren arteko zabaleraetik eskala handiko fatxadak dira Bolumen nagusiarekin alderatuta, harmailadi nagusiko dorrea aparteko pieza berezi gisa gelditzen da.

Babes erregimena.

- 1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: gaur egungo arotzeria guztiak.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; salbuespen gisa beheko solairuan fatxadako baoen urratze puntuala baimentzen da, beharrezkoa programari eta eraikinaren zuzkidura erabilerari eskatutako baldintza teknikoak betetzeko.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D. Nahitaezko lehengoratzek: ez.